

**I. KAPITULUA. Arau orokorrak.**

**1. artikulua.- Izaera eta Aplikazio-eremua.**

1. Udal Aurrekontua onartzean, kudeatzean eta likidatzean, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arau honek ezartzen duenari lotu beharra dago, eta, arauotan izan ezean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak ezarritakoari.

2. Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arau hau, Aurrekontu Bateratuan sartutako tokiko Erakunde Autonomoen Aurrekontuei aplikatuko zaie, aplikatu ahal dakien eran eta moduan.

3. Udal Sektore Publikoaren Aurrekontu Orokorra, zeinaren zenbateko bateratuak –gastuetan eta diru-sarreretan berdindua- 44.168.102,96 euroko zenbatekoa duen, honakoek osatzen dute:

- a) Udalaren Aurrekontua -gastu-egoera eta diru-sarrerena, berdina-39.007.467,54 eurokoa da.
- b) “Juan Bautista Gisasola” Herriko Musika Eskolaren Udal Patronatua erakunde autonomoaren Aurrekontuak; 513.310,02 eurokoa.
- c) “San Andres” Nagusien Egoitza Fundazio Publikoa erakunde autonomoaren Aurrekontuak; 3.953.902,34 eurokoa.
- d) Kiroletarako Eibarko Udal Patronatua erakunde autonomoaren Aurrekontuak; 2.656.374,00 eurokoa.

## **2. artikulua.- Denbora-eremua.**

Aurrekontua Gauzatzeko Arau honek Aurrekontuak duen indarraldi berbera izango du eta hark izan dezakeen luzapenak ere beste horrenbeste.

Ekitaldi bat hasterakoan, ekitaldi horri dagozkion Aurrekontu Orokorrak oraindik indarrean sartzeke egonez gero, besterik gabe, aurreko ekitaldikoak hartuko dira luzatutzat, 21/2003 Foru Arauaren 50. artikulua aurrekontuen luzamenduaz dakarren araubideari men eginez.

Aurrekontuaren luzamendu egoeretan, eta salbuespenez, kreditu-eragiketa mota hauek hitzartu ahal izango dira:

- Diruzaintzako eragiketak, Arau honen 3.4. artikuluan esandako muga horretaraino.
- Konpromisozko kredituei dagozkien inbertsioak finantzatzeko epe luzerako kreditu-eragiketak, baina betiere, inbertsioetan finantzaketa-era hori erabaki izan bada.

## **3. artikulua.- Berme-emateen mugak eta zorpetzearenak.**

1. Edozein motatako abal bat zein berme bat eman ahal izateko, Udaltzak berariaz eman behar du baimena, kasu guzti-guztietan.
2. Udalak epe luzerarako hitzartu ditun zorpetze-eragiketetatik sortutako zor biziaren zenbatekoa –zein delarik ere eragiketa horiek dokumentatzeko modua- ezingo da izan 2019ko abenduaren 31n aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarreraren % 40tik gorakoa.
3. Erakunde Autonomoek ez dute kreditu-eragiketetara jotzerik beren Aurrekontuetako gastuak finantzatzeko. Hala egin behar izanez gero, Aurrekontu horiek Udalak egindako transferentzia bidez orekatuko dira.
4. 2019. ekitaldian, Udal Sektore Publikoa osatzen duten entitateek, urtebeteko epera iritsiko ez diren zorpetze-eragiketak hitzartu ahal izango dituzte Diruzaintzan egon daitezkeen aldi baterako desorekak finantzatu ahal izateko; hala ere, zorpetze-zenbateko horiek ezingo dira izan likidatu den azken ekitaldian eragiketa arruntetatik jasotako diru-sarreraren % 20tik gorakoa.

## **II. KAPITULUA. Kredituen araubide orokorra eta aldaketarako araubidea.**

### **4. artikulua. - Kredituen araubide orokorra.**

1. Gastuetarako kredituak Aurrekontu Orokorrean edo behar bezala onartutako aurrekontu-aldaketetan baimendu diren helburu zehatz eta jakinetarako erabiliko dira, ez beste ezertarako.

2. Aurrekontu-kredituek izaera mugatzailea eta loteslea dute. Sozietate publikoetan, transferentzia eta diru laguntza arruntetarako eta kapital transferentzia eta diru laguntzetarako ordainketa kredituak bakarrik izango dira muga izaerakoak.

3. 2019. ekitaldirako lotura-mailak hauek izango dira:

- a) 1. kapitulua: kapitulu mailan ezartzen da soilik lotura, pertsonalari bakarrik dagozkion gastuetan.
- b) Egitarau funtzionala eta kapitulua, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketei dagozkien gastuetan.
- c) 3., 4., 6., 7., 8 eta 9. kapituluak: lotura egitarau funtzionalaren mailan eta kontzeptuan ezartzen da.
- d) Aurreko xedapen horiek 1. ERANSKINAREN zerrendan zehazten ez diren kasu horietan izango dira aginduzkoak.

## **5. artikulua. - Konpromisozko kredituak.**

1. Konpromisozko kredituen egoera, ekitaldian eta hurrengo ekitaldietarako konprometitu daitezkeen eta urte anitzeko izaera duten gastu-multzoak osatzen du, eta kredituon onespenez baimena emango du ezarritako baldintzetan formalizatzeko.

Konpromisozko kredituen egoerak, kreditu horietako bakoitzaren zenbateko osoa eta kredituok gauzatzeko zenbat ekitaldi aurreikusten diren adieraziko du.

Etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarrean dauden Konpromisozko Kredituen zenbateko metatua ezingo da izan Aurrekontu honen aurretik likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten baliabideen %25 baino gehiagokoa, 21/2003 Foru Arauaren 6.3e) artikulua eskatzen duen azterketatik muga txikiago bat ezarri ezean.

Kanpoko baliabideen bitartez finantzatutako konpromisozko kredituak ez dira gastutzat zenbatuko aurreko paragrafo horretan aipatu den muga horren ondorioetarako.

2. Aurrekontuek ezingo dute jaso ekitaldi honetan bertan edo hurrengoan gauzaten hasiko ez den Konpromisozko Krediturik.

Toki Erakundearen Administrazioaren Aurrekontuetan eta beraren Erakunde Autonomo Administrazioaren Aurrekontuen barruan sartutako konpromisozko kredituak, geroagoko adjudikazioaren menpeko eragiketei dagozkienean eta, beraz, aurretik zehatz-mehatz finkatzerik ez dagoen zenbatekokoak direnean, Udaltzako baimena eman dezake kontratuak hasieran aurreikusitako edo/eta onetsitako zenbatekoaren gaineko % 20ko gehikuntzarekin formalizatzeko eta, jatorrian aurreikusitako epealdia urtebetez gaintzen duen denboraldirako egiteko, baldin eta artikulua honetako 1go. atalean ezarritako muga lortzerainoko behar adina marjina balego, edo gehikuntza hori, beste konpromisozko kreditu batzuen murrizketarekin konpentsatuta geratuko balitz. Kasu horretan, Alkateari ahalmena ematen zaio kreditu-aldaketa egiteko.

3. Udaltzari dagokio Konpromisozko Kredituak onartzea; konpromisozko kredituak egokiro eta aparte kontabilizatuko dira.

4. Ondoko gastu hauek ez dira sartuko konpromisozko kredituen egoera-orrian: pertsonal gastuak; finantza-zamak; zorpetzetik sortutako amortizazioak; ondasun higiezinak errentan hartzetik sortutako konpromisoetatik lezozkeen gastuak; eta ezta iraunkorrek eta segidako traktukoak edo behin eta berriz egitekoak ere.

5. Udaltzak baimena eman dezake finantzazio zehatzik gabeko kreditu-aldaketak egiteko, baldin eta artikuluko honetako 1go. atalean ezarritako muga lortzerainoko behar adina marjina balego. Kasu horretan bakarrik aplikatuko dira kreditu gehigarriak tramitatzeko dauden informazio-arauak, erreklamazioak, publizitatea eta errekursoak.

Finantzazio zehatza duten gainerako aldaketei Alkateak emango die baimena. Ondorio horietarako, deuseztatzeak, kreditu-transferentziak eta xede edo helburu jakin bat duten diru-sarrerak, finantzaketa zehatzekoak izeneko baliabideak dira.

Alkateak alda ditzake konpromisozko kredituen urtekoak, aurrekontu-finantzaketa gastu-proiektuaren exekuzio planari egokitu ahal izateko, baldin eta konpromisozko kreditu bakoitzaren zenbateko osoa aldatzen ez bada eta artikuluko honen 1. atalaren mugak errespetatzen badira. Aldaketa horien inguruan txostena emango du Kontuhartzaitzak .

## **6. artikulua.- Kreditu globala.**

Aurrekontuko gastuen egoera-orriaren barruan ordainketa-kreditu globala sartu ahal izango da, ordainketarako beste kreditu batzuen zuzkiduren gutxiegitasunak gauzatzeko edo zuzkidurarik ez duten beharizan berriei aurre egiteko; bai eta zabalgarritzat hartzen diren kredituak finantzatzeko ere. Horrela eraturako kreditu globalaren zuzkidura ez da Toki Erakundearen Administrazioaren Aurrekontuko ordainketa-kredituen zenbateko osoaren % 5 baino gehiago izango, kreditu globalaren beraren zuzkidura barne dela.

Kreditu globala 21/2003 Foru Arauaren 23. artikuluko garatzen duen prozedurari lotua geratzen da.

Kreditu globalaren xedapenak Alkateak baimenduko ditu.

## **7. artikulua. Baldintza orokorrak diru-laguntzetan.**

1. Diru-laguntzak emateko eskumena duen organoa, bere atribuzioen muga barruan, gastu-konpromisoak hartzeko gaitasuna esleitu zaiona da, betiere toki araubidearen legeriaren arabera.

2.- Diru-laguntzak eman aurretiko baldintza da kreditu egokia eta nahikoa izatea diru-laguntzak ematek sortuko diren eduki ekonomikoko obligazioei aurre egiteko

3. Diru-laguntzen tramitazioan azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, diru-laguntzetarako Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak –Diru-laguntzen Legeko Erregelamendua onartzen duena–, Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzak eta bidezkoa eta aplikatzekoa den gainerako araudiak dioena beteko da.

4. Diru-laguntzak jaso dituzten erakunde onuradunak behartuta daude diru-laguntzak ematea oinarritu duten helburuak, proiektuak eta jarduerak betetzera, eta helburu, proiektu eta jarduera horiek indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin bat datozenak izango dira.

5. Erakunde onuradunek jarduera egin dutela eta diru-laguntzaz gozatzeko edo diru-laguntza emateko ezarri zen helburu hura bete dutela justifikatuko dute.

6. Onuradunak men egingo die diru-laguntza eman duen organoak egingo dituen egiaztapen jardunei eta eskatzen zaion informazio guztia emango du.

7. Diru-laguntzak ematen dituen Sail bakoitzeko arduradunak izango dira diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko xedapenek ezarritakoa onuradunek betearazteko ardura hartuko dutenak. Beraz, beraiek dira ematen dituzten diru-laguntzen erantzule. Horrek ez du esan nahi gerora kontu-hartzailetzaren kontrola egingo ez denik.

8. Izenduntzat hartuko dira Aurrekontu Orokorrari laguntzen dion dokumentazio horretan izen horrekin azaltzen den eranskinean sartutako diru-laguntzak. Alta berriek, eta bai diru-laguntza izendunen eranskinean aurreikusitako zenbatekoak igotzean izandako aldaketek ere, dagokien kreditu gehigarria eskatzen dute, Udaltatzak onartua.

## 8. artikulua. Kreditu zabalgarriak.

Ondoko taula honetan azaltzen diren kredituak zabalgarriak dira, eta horien zenbatekoa handitu egin ahal izango da, kreditu bakoitzaren finantzaketari lotutako diru-sarrerak benetan biltzen badira edo jasotzen badira:

KREDITU ZABALGARRIAK.			FINANTZAKETA:	
KONTU SAILA:	IZENDAPENA	HASIERAKO ZENBATEKOA.	KONTU SAILA:	IZENDAPENA
1.1100.823.01.920.20	Langileen aurrerakinak.	20.000,00	2.0000.833.01	Langileen aurrerakinak.
1.0100.227.99.133.10	Garabia. Kanpoko lanak.	125.000,00	2.0000.310.05	Ibilgailuak erretiratzea.

Kreditu globalaren xedapenengatik ere handitu daitezke.

Kasu bi horietan alkateak hartuko du kreditua handitzeko erabakia.

## 9. artikulua. Kudeaketa- kredituak.

Edozein erakunde publikok Eibarko Udalera funtsak bideratzen baldin baditu udal honek eskumenik ez duen arloetan proiektuak burutzeko, dagokion kudeaketa-kredituari alta emango dio, eta horrek jasoko ditu funts horiek hartzetik eratorritako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak diren ordainketa-kredituak.

Kudeaketa-kredituei dagozkien ordainketa-kredituei alta emango zaie gastuen egoera-orrian inguruabar hori adierazita; eta kreditu horiek gauzatzean, kasu bakoitzean aplikagarria den araudiari egingo zaio men.

## 10. artikulua.- Arautegi orokorra, kreditu-aldaketan araubideari aplikagarri zaiona.

1. Aurrekontu-kredituak aldatu ahal izango dira abenduaren 19ko 21/2003 FORU ARAUAK ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa; baita Aurrekontua Gauzatzeko Arau honek dituen zehaztapenen arabera ere.

2. Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzten Gastuen eta Sarreraren egoera-orrien aldaketak mota bikoak izan ahalko dira:

- Aldaketak, Gastu Egoera-orri horren guztizko zenbatekoari eragiten ez diotenak eta Kreditu Transferentzien araubideari lotuko zaizkionak.

- Aldaketak eragindako egoera-orrien osotarako zenbatekoan, araubide hauei lotuko zaizkienak:
  - Kreditu gaikuntza.
  - Kreditu txertaketa.
  - Deuseztatzeagatiko bajak.
  - Kreditu gehigarriak
  - Hitzarmenak
  - Kreditu zabalkuntzak.

3. Kreditu-aldaketarako espedienteari Alkatetzak egindako proposamenez ekingo zaio, aldaketa egin nahi duen udal Sailak hala eskatuta.

Proposamen horri justifikaziozko memoriak lagunduko dio, gastua ekitaldi barruan egiteko premia dagoela eta lotura juridikoa ezarrita dagoen maila horretan krediturik ez edo kreditu gutxiegi dagoela esaten.

Memoriaren edukia:

- a) Aldaketa-prozedura eskatu duen Saileko arduradunaren izena.
- b) Proposatu den gastuaren zertarakoari buruzko deskripzio zehatza; gastu hori ekitaldian bertan egiteko premiaren inguruko justifikazioa. Krediturik eza edo kreditu gutxiegi lotura juridikoaren mailan.
- c) Eraginpean dauden kredituak eta kreditu horiek finantzatzeko baliabideak edo bitartekoak.
- d) Eraginpean dauden zerbitzuen izaera zehatza, udalaren aldetik derrigorrezkoak ala derrigorrezkoak ez diren adierazita.
- e) Aurrekontu-aldaketaren zenbatekoa.
- f) Hala bada kasua, txostena, proposatutako murrizketek zerbitzua ez dutela asaldatuko adierazten.

Aurrekontu-aldaketarako eskaera eta eskatu den gainerako dokumentazio guztia, behar bezala bete eta Ogasun sailari bidaliko zaio. Kontuhartzaitzak, legokeen ebazpena eman aurretik, txostena egingo du.

4. Aurrekontu-aldaketaren onespena, Aurrekontua Burutzeko Arau hauek esandako organo eskudunari dagokio.

5. Aurrekontu-aldaketak onartu dituena Udalbatza izan ez bada, udal organo horri aldaketa horren berri eman behar zaio.

## **11. Kreditu-transferentziak.**

1. Kreditu transferentziazat hartuko da Aurrekontuaren aldaketa bat, aurrekontuaren zenbateko osoa aldatzeke, kreditu baten kopuru osoa edo partziala lotura juridiko ezberdinak dituzten aurrekontuko beste kontu-sail batzuen artean banatzen denean.

2. 4. Kreditu Transferentzia orok bete behar du aurrekontu-aldaketarako espedienteak tramitatzeko ezarritako baldintzak.

3. Egitarau funtzional baten barruko transferentziak Alkateak onetsiko ditu, inbertsio errealerako aurreikusitako diru-izendapenak gutxiagotzen dituzten transferentziak izan ezik, horiek Udalbatzak onartuko baititu. Alkatearen ahalmena izango da VI. eta VII. kapituluaren arteko kreditu-transferentziak onartzea erakunde autonomo administratiboen alde.

4. Eginkizun egitarau ezberdin batzuen arteko transferentziak erakundeko buruak onetsiko ditu, jatorrizko eta destinoko egitarauetarako aldaketen diferentzia metatuak aurreikusitako hasierako zainpeketen %25 gainditzen ez duenean, ondasun-inbertsioetarako zainpeketak gutxitzen dituztenean izan ezik.

5. Edozein motatako kreditu transferentzia dago ondoko muga hauek lotuta:

a) Ez dituzte gutxituko transferentzia-araubidez edo kreditu-gehirri legez handiagotutako ordainketa-kredituak; ezta Aurrekontua Gauzatzeko Arau honen 5.2. artikulua ezarritakoaren arabera konpromisozko kreditua handitu izan denean ere.

b) Ezin izango dituzte handitu beste transferentzia baten ondorioz gutxitutako kredituak.

c) Zabalgarritzat jotako kredituak gutxiagotu egin ahal izango dituzte, baina hori eginez gero izen edo kalifikazio hori galdu egingo dutenez, geroztik ez dute gehitserik izango.

6. Aurrez aipatu diren mugek ez dute pertsonal-kredituei dagozkien kreditu-transferentzietan eragingo; eta Udalbatzak onartutako berrantolaketa administratiboen ondorioz sortutako transferentzien kasuan ere ez dira aplikagarri izango.



Kreditu-transferentzien araubidea aplikagarria izango da aurreko ekitaldietatik erantsitako soberakinei dagokienean, eta kreditua gutxitu ahal izango da, baldin eta hori eskatzen duen Sailak erantsitako kredituaren saldirik ez duela behar justifikatzen badu. Hori onartzeko ahalmena edo eskumena, artikulua honen aurreko ataletan ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

## **12. artikulua.- Kreditu-zabalkuntza.**

Kreditu-zabalkuntzat hartzen dena hauxe da: Aurrekontua Gauzatzeko Arau honetan aipaturik datozen kontu-sail zabalgarri horietako baten aurrekontua goratu eta aldatzea.

Kasu bi horietan Alkateak hartuko du kreditua handitzeko erabakia.

## **13. artikulua.- Kreditu gaikuntza.**

1. Ekitaldiaren barruan lortu, baina Udal Aurrekontuetako edo beraren organismo autonomoen Aurrekontuetako sarreretan aurreikusi gabeko sarrerek edo aurrekontuotan aurreikusitako zenbatekotik gorakoak badira, gastuen orri egokian, aurrekontu kredituak gaitu ahal izango dituzte.

2. Kreditu berriak gaitu edo daudenak zabaldu ahal dituzten sarreratzat hartu ahal izateko iturriak hauek izango dira:

a) Norbanakoek edo pertsona juridikoek egindako ekarpenak edo ekarpenerako konpromiso irmoak; betiere, toki erakundearekin edo beraren organismo autonomo batekin batera, hurrenez hurreneko helburuen edo xedeen barruan, beren izaera bereziagatik dauden gastuak finantzatzeko direnean.

b) Ondareko ondasunen besterentzeak.

c) Zerbitzu-eskaintzak.

d) Maileguen diru-itzulketak.

e) Beste erakunde publiko batzuen aurrekontu orokorren kargura jaso edo pertsona edo erakunde pribatuek ematen dituzten beste ekarpen batzuk.

f) Bidegabeko ordainketen eta itxitako ekitaldiei dagozkien ordainketen diru-itzulketak.

3. Aurreko b) hizkian deskribatutako eragiketetan oinarrituta gaitzen diren kredituak kapital eragiketen finantzatzeko aplikatu beharko dira.

Aurreko a) eta e) hizkietan deskribatutako eragiketen bidez gaitutako kredituak, ondorio horretarako hitzartutako proiektu jakin batzuk burutzeko aplikatu beharko dira.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 113. artikulua aipatzen dituen diru-baliabideek, Udalaren Lurzoru Ondarea osatzeko, mantentzeko eta hedatzeko asmoarekin lotutako funtzat hartuko dira.

4. Lortutako sarrerak finalistak edo helburu jakin eta zehatz baterakoak direnean, gaikuntza Alkateak baimenduko du. Gainerako kasuetan, ahalmen hori Udalbatzarena izango da, baina kasu bietan, aurretik, Kontuhartzaitzaren txostena eman behar da.

5. Aurreko artikulua horietan ezarritakoaz gain, krediturik gaitu ahal izango da kontu-sail zabalgarrietan eta kreditu globalean, zerga-izaerako sarrera likidatu berriez edota handiagoz baliatuz.

#### **14. artikulua.- Kreditu txertaketa.**

1. Toki Erakundearen Administrazioak ekitaldi honetan indarrean duen aurrekontuari eta beraren administrazio Organismo Autonomoen aurrekontuari, kasuan kasuko, txertatu ahal izango zaizkie bakoitzak aurreko ekitaldian zuen aurrekontuetako gastuen orrien barruko ordainketa-kredituak, betiere, dagoeneko aitortuta dauden obligazioen eraginpean ez badaude eta hurrengo kasu hauetako batekoak badira:

- a) Baimendutako transferentzia-xede izan diren kredituak eta kreditu gehigarriak, betiere, kasu bi horietan, ekitaldiko azken hilekoan emandakoak badira.
- b) Ezarri edo erabilitako gastuei dagozkien kredituak, betiere, arrazoi justifikatuak direla medio, beraietarako obligazioa hartu ezin izan denean.
- c) Kreditu egokituak eta xede-helburuko diru-sarreretara lotutako beste kreditu batzuk.
- d) Kredituak kapital eragiketengatik.

2. Kreditu geldikinak txertatu ahal izateko, horretarako nahikoa finantza baliabideak egon beharko dira, eta txertatzerakoan, jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berdinarekin txertatuko dira.

3. Kreditu txertaketak eransten diren ekitaldiaren barruan erabili beharko dira, geroago ezin daitekeelako txertaketa gehiagorik egin, helburu jakin bat duten sarreren bitartez finantzatzen diren kapital eragiketak direnean izan ezik.

4. Kreditu txertaketak egiteko eskumena Alkateak dauka, aurretik, Kontuhartzaitzaren txostena emanda. Gero, Udalbatzari eman behar zaio horren berri Aurrekontua Gauzatzeko Arau hauetan adierazitako eran.

5. Ordainketa kredituak direnean -baldin eta onetsiak diren ekitaldian konprometitu ez badira eta konpromisozko kredituei badagozkie- eta txertaketa eginez gero, konpromisozko kredituok automatikoki txertatuko dira.

#### **15. artikulua. Deuseztatze-bajak.**

1. Deuseztatzeagatiko baja Gastu Aurrekontuan egiten den aldaketa da, Aurrekontuko kontu-sail bati izendatutako kreditua osorik edo zati bat kentzen zaionean.

2. Gastuen Aurrekontuko edozein kredituri eman dakioke deuseztatze-baja, betiere dagoen kredituaren saldoaren zenbatekoan denean eta zuzkidura hori, harako zerbitzua ukitu gabe, gutxitu edo baliorik gabe utz daitekeela uste denean.

3. Honako kasuok izan daitezke kreditu-bajaren arrazoibide:

- a) Diruzaintzako Geldikin negatiboak finantzatzea.
- b) Kreditu gehigarriak finantzatzea.
- c) Toki erakundeko Udalbatzaren beste erabaki batzuk betetzea.

4. Aurrekontuan dauden ordainketa-kredituak deuseztatzeagatiko baja Udalbatzak erabakiko du.

#### **16. artikulua. Kreditu gehigarriak.**

1. Ordainketa-krediturik izendatuta ez daukan gasturen bat egin beharra baldin badago, edo ordainketa-kreditua izanda ere nahikoa ez bada eta handitzekoa ez bada; arau honetan araututako aldaketa-araubideari jarraituz ezin bazaio estaldurarik eman, kreditu gehigarria emateko espedientera joko da, ondorengo atal hauetan aipatzen diren arauen arabera:

2. Kreditu gehigarriari buruzko espedienteari, Aurrekontua Gauzatzeko Arau honetan aurrekontu-aldaketetarako araututako prozedura aplikatuta emango zaio hasiera, eta izapidetu ere, prozedura hori aplikatuta izapidetuko da. Hartara, kreditu gehigarriaren espedientea, Kontuhartzaitzak txostena eman ondoren tramitatu edo izapidetuko da.

Kreditu gehigarriaren balizko finantzaketatzat, diruzaintzaren geldikina, aurrekontu arruntean aurreikusitako sarrera osoen gainean likidatutako sarrera berriak eta handiagoak -betiere, sarrera oso horiek normaltasun osoz egien direla egiaztatzen denean, helbururen bat izan behar edo badute izan ezik- eta ordainketa kredituen baliogabetzetik sortutako bajak hartuko dira.

3. Kreditu Gehigarriaren espedientea, aurrekontu-araudian eta Gauzatzeko Arau honetan ezarritako tramite edo izapide guztiak bete ondoren, Udalbatzara eramango da onespena eman diezaion.

4. Alkateari ematen zaio ondoko baldintza hauek betetzen dituzten Kreditu Gehigarriak onartzeko ahalmena:

a) Ez daitezela finantzatu 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan islatzen diren kreditu-eragiketekin.

b) Ez izatea, urtean zehar eta metatzeagatik, Aurrekontuaren hasierako kredituen % 5 baino gehiagoko gehikuntzarik.

Kasu berezi horretan ez dira aplikagarriak izango kreditu gehigarri baten ohiko tramitazioan eskatzen diren informazio-, erreklamazio-, publizitate- eta baliabide-arauak.

### **III. KAPITULUA: Aurrekontuak gauzatzea.**

#### **17. artikulua. Sarrerez.**

1. Aurrekontuaren sarrera-egoerak, ekitaldian likidatu beharreko diru-baliabide guztien balioespenak hartzen ditu.

Aurrekontu-ekitaldiari urte horretan likidatutako eskubideak egotziko zaizkio, edozein dela ere haien sortze-aldia.

Sarreren Aurrekontuaren kudeaketak, kasu guztietan, ondoko aldi hauek ditu:

- a) Sarrera aitortzea.
- b) Sarrera kobratzea.

Gastuei lotutako diru-sarreren kasuan, lehen esandakoez gain, sarrerako konpromiso irmoaren fasea ere sar daiteke zerrenda horretan.

Sarrera konpromiso irmoaren bitartez, edozein erakundek nahiz edozein pertsonak, dela publikoa, dela pribatua, bere burua behartu dezake Udal Erakundearekin egindako akordio edo hitzarmen baten bidez, gastu jakin bat modu garbi edo baldintzatuan osorik nahiz zati batean finantzatzera; eta hartara, Udal Erakundeak kobrantza-eskubidea du Udalak bere gain hartutako obligazioak betetzean.

Ekarpenezko konpromiso irmoak formalizatu ahal izango dira, hitzartu diren ekitalditik geroragoko ekitaldietara luza litezkeenak. Sarrera-konpromiso horiek kontabilizazio egoki eta banan banakoa jasoko dute, baliabideak, ordainduko diren urteko diru-sarreren aurrekontuari sekuentzialki egotzita.

2. Sarrera aitortzeko egintzaren bitartez, likidatutako eskubideak kontuan hartzen dira; betiere, araudiaren arabera.

3. Sarrera kobratzeko egintzaren bitartez, aldeztatik edo aldi berean aitortutako eskubide bat eraginkor bihurtzen du.

4. Diru-sarrerak gauzatzeko prozedura osatzen duten eragiketa guztiak dokumentu bidez justifikatu behar dira.

5. Zergak eta gainerako udal diru-sarreraren kudeaketa, likidazioa eta bilketa, dagokien Ordenantza Fiskalaren xedapenei hertsiki lotuta egiaztatuko da.

6. Udal zerga guztiak likidatzeko, Diru-sarreraren Atalak, zerga bakoitzaren Ordenantza Fiskalak ematen dituen aginduez gain, azpiko aurreneurri hauek hartu behar ditu:

a) Beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu, urteko erroldak edo matrikulak, likidazio-prozedura hori dagokion zergei dagokienean, legez ezarritako epeen barruan egin, horretan eskumena duen organoaren onespenera jarri eta jendaurrean utzi daitezten.

b) Errolda bakoitzaren altak eta bajak presako izaerarekin tramitatzea, memento guztietan behar bezala eguneratuta egon daitezten.

c) Zerga Ikuskaritzak jasotako aktak ezarritako epeetan likidatzea.

7. Udal Ogasunaren diru-sarrerarik ezingo dira gutxitu, bidegabeko diru-sarrerak itzultzean izan ezik. Itzulketa, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Arau Nagusia dakarren Foru Arauaren artikuluek eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek ezarritakoa betez egingo da.

8. Udal Ogasuna osatzen duten era guztietako baliabideen diru-bilketaren produktua; Ondarearenak; zerbitzu- eta ustiapen-etekinak; lor daitezkeen diru-laguntzak, laguntzak eta dohaintza guztiak, horiek denak Udal Diruzaintzan edo Kreditu Erakunde laguntzaileetan sartuko dira.

Diru-sarrera beti egiaztatuko da dokumentua luzatuta eta dagokion aurrekontu-kontzeptuari behar bezala aplikatuta.

Edozein motatako diru-sarrerak, Aurrekontuaren Sarrera Egoera-orrian dagozkien kontzeptuari aplikatuko zaizkio, bertan islatutako egiturarekin bat etorritz.

9. Udal Zerbitzu eta Sail guztiek eta Udalaren Erakunde Autonomoek, beraien eskumenen esparru barruan, Administrazio publikoek ateratzen dituzten laguntza zein diru-laguntza guztiak eskatu beharko dituzte, eta kasu horretan, Ogasun Sailari, egin dituzten eskaera horien berri emango die ondoko datu hauek adierazita:

- Zein erakunderi edo organismori eskatu zaion laguntza.
- Aplikaziorako araudia.
- Deialdiaren deskripzioa.
- Aurkeztutako proiektua.
- Eskatutako zenbatekoa, egitekotan dagoen gastu hori ekitaldiko aurrekontuan dagoen adierazita.
- Diru-laguntzaren eraginpeko aurrekontu-ekitaldia edo -ekitaldiak.
- Aurkeztutako dokumentazioaren kopia.

Diru-laguntza emanez gero, ebazpenaren edo akordioaren kopia Ogasun Sailari bidali behar zaio. Ogasun Sailak Udalak egin dituen ordainketen egiaztagiriak emango ditu, diruz lagundu duen Administrazioari bidaltzeko.

## **18. artikulua.- Gastua gauzatzea. Aldiak.**

Gastuen Aurrekontuaren kudeaketa indarrean dagoen araudian ezarritako printzipio orokorretara egokituko da eta aldi edo fase hauetan egingo da:

- a) Gastua baimentzea.
- b) Gastuaren xedapena edo konpromisoa.
- c) Obligazioa aitortzea.
- d) Ordainketa agintzea.
- e) Ordainketa egitea.

Gastua baimentzean ematen zaio hasiera gastua gauzatzeko prozedurari; eta egintza horren bitartez, zenbateko zehatz bat edo gutxi gorabeherako bat duen gastu jakin bat egitea erabakitzen da, horretarako kreditu osoa edo zati erabilia.

Gastua xedatzea edo horretarako konpromisoa hartzean, legez ezarritako tramiteak bete ondoren, aldez aurretik baimendutako gastuak zenbateko jakin batekin egitea erabakitzen duen egintza da.

Obligazioa aitortzen eta likidatzen denean, baimendu eta konprometitutako gastu baten ondorioz Erakundeari eska dakioken kreditua dagoela adierazten da, baimendutako eta konprometitutako gastu batetik datorrena.

Obligazioak edo betebeharrak aitortu baino lehen, eskumena duen organoaren aurrean, dokumentu bidez egiaztatu behar da egin beharreko prestazioa egin dela edo hartzekodunak eskubidea duela, betiere bere garaian gastua baimendu eta konprometitu zuten erabakiek diotenarekin bat.

Ordainketa agindutzat ulertu behar dena hauxe da: hartutako obligazio baten ondorioz, Udal Erakundearen Diruzaintzaren kontrako ordainketa-agindu bat luzatzeko eragiketa.

## **19. artikulua.- Gastua gauzatzea. Eskumenak.**

1. Gastuak baimentzea eta xedatzea Alkateari edo Udalbatzari dagokie, indarrean dagoen araudiak bakoitzari egozten dizkion eskumenen arabera.
2. Alkateari dagokio, legez egindako gastuetatik sortu diren konpromisoari aurre egiteko eginbeharrak edo obligazioak aitortzea.  
Salbuespen gisa, bidezkoa ez den aberaste-modua eragozteko xedez, Udalbatzak berak egin dezake kreditu-aitorpena indarrean dagoen aurrekontuaren kredituen kargu, betiere aurrekontu-zuzkidurarik ez badago, gastuak legez edo arauz ezarritako prozedura betetzeke egindakoak badira eta legeak esandako eran baliozkotzeke badaude. Erakunde Autonomoen kasuan, beraien Estatutuek atal horietan aipaturako eskumenak egozten dizkien organoei dagokie.
3. Ordainketak egiteko Agindua ematea Alkateari dagokio.
4. Erakunde autonomotan, Estatutuek esandako organoak izango du ordainketa agindua.

## **20. artikulua.- Gastua gauzatzea. Prozedura.**

1. Baimentzea eta xedatzea.

a) Prozedura irekiz edo prozedura negoziatu bidez esleitzen diren kontratuetan: Prozedura horietan, sail Sustatzaileak, proposatzen duen kontratazioaren premia edo egokiera justifikatu egin behar du, eta espedienteari egin nahi den kontratazioa zehaztuko duen Baldintza Teknikoen Orria (obra kontratuetan: obraren proiektua) erantsiko dio; baita kontratazio publikoaren inguruko legerian eskatzen diren gainerako dokumentazio guztia ere. Prozedura negoziatu bidez esleitzen diren kontratuetan, izaera bereziko denez, justifikatu egin behar da prozedura hori zergatik aukeratu den.

Espedientea, dokumentu horiekin, Erosketa eta Kontratazio Atalean taxutuko da, eta aurrenik Kontuhartzaitza Sailak txostena emanda, horretarako eskumena duen organoak gastua eta kontratazio-espedientea onartuko ditu. Organo eskudunak gastua onartu ondoren, kontabilitatean "A" aldia erregistratuko da.

Erosketa eta Kontratazio Atalak bideratuko ditu kontratua esleitzeko tramiteak edo izapideak. Kontratazio-mahaian Kontu-hartzailea izango da, eta han dela, egiten ari den tramitazioaren zertzelada guztiak aztertuko ditu; konforme izan ezean, kontratazio-mahaiak egiten duen esleipen proposamenari oharrak egingo dizkio. Publizitate gabeko prozedura negoziatuetan, kontratazio-organok kontratazio mahairik eratzen ez duenetan, esleipen akordioa hartu aurretik, espedientea kontu-hartzaileari igorriko zaio hark fiskaliza dezan.

Organo eskudunak ebazpena eman ondoren, kontabilitatean "D" aldia erregistratuko da.



## 2. Obligazioak aitortzea

Kontratatik, horretarako legez ezarritako epeen barruan, egin dituen lan edo prestazio guztiei dagokien zenbatekoa jasotzeko eskubidea du.

Epe horiek, kontratistari, kontratuz dituen obligazioak edo legeak ezartzen dizkionak betetzerakoan akatsen bat egin eta akats hori konpontzeko erreklamatzeko zaionean etengo dira; edo kontratuz dituen obligazioak bete egin dituela egiaztatzeko edo/eta kobratzeko aurkeztu duen faktura edo beste dokumentuetakoren bat aldatzea eskatzen zaionean. Akats horiek konpondu ondoren, epeek bere horretan segituko dute.

Obra-kontratuaren egindako ziurtagirien ondoriozko abonuek, azken likidazioaren menpe geratzen diren kontrako ordainketak hartuko dira, eta hain zuzen ere, amaierako neurketa horretan egon litezkeen zuzenketa eta aldaketa guztiei lotuta geratuko dira. Hala ere, horrek ez du esan nahi, inondik inora ere, hor azaltzen diren obrei onespina eta onarpena ematen zaienik.

Obligazioaren aitortzea egin aurretik, kontratuaren egikaritze-arduradunak, prestazioari emandako onarpena eta adostasuna ondoko era honetan egiaztatu behar du:

a) Kontratu txikian, kontratatik lortu duen faktura jaso ondoren eta, kontratua sustatu duen sailak kontratu hori ondo burutu dela egiaztatu ondoren, fakturari ematen zaion onarpenaren eta adostasunaren seinale, zigilatu egingo da "jasoa / ados" hitzak izango dituen zigilu batekin, eta kontratuaren arduradunaren oniritzi izenpetuarekin.

b) Gainerako kontratuaren, onarpen akta batean islatuko den onarpen eta adostasun egintza formal baten bidez.

Obligazioen edo betebeharren aitortzea, oro har, kontabilitatean ateratako faktura-zerrendetatik abiatuta tramitatuko da, Udalburuak –aurretik Kontu-hartzaileak bere txostena emanda edo kontua hartuta- onartuko dituen fakturak.

## 3. Ordainketa agintzea.

Aurretik aitortutako eginbeharren ordainketa agindua Alkateari dagokio.

Ordainketak egiteko agindua, oro har, Diruzaintzak egingo dituen ordainketa-aginduen zerrendetatik abiatuta egingo da, funtsen erabilera planarekin bat etorrira.

## 21 artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko aldiak metatzea

Batzuetan, gastu-espedienteetan, tramite bat egiterakoan aurrekontua gauzatzeko aldi batzuk metatu egin daitezke, gastuaren izaerari erreparatuta eta administrazio-ekonomiaren eta arintasunaren irizpideei kasu eginda.

### 1. Baimentzea eta xedatzea. "BX"

Egin behar den zerbitzuaren, obraren edo horniduraren zenbateko zehatza ezagutzen denean, toki erakundeak legez hartu dituen betebeharretatik sortutako gastuak baimentzea eta xedatzea, aldi bi horiek batzean datza.

- a) Kontratu txikiak.
- b) Urte anitzeko gastuak, aurreko jardunaldietan lotuak.
- c) Obra eta zerbitzu osagarriak.
- d) Aldatuak, luzapenak eta prezio-berrikuspenak.
- e) Esparru-kontratuen ondoriozko esleipenak. Gipuzkoako Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala.
- f) Lankidetzak hitzarmenak.
- g) Errenta-mota guztiak, alde aurretik hitzartuak.
- h) Segidako traktuzko kontratuak edo behin eta berriz egitekoak (garbiketak, instalazioak mantentzea, etxeko laguntza...)
- i) Tramitazio aurreratuko gastuak ("D"), aurreko ekitaldian gastu xedapenaren aldiraino heldu direnak.
- j) Aurrekontuetan azaltzen diren diru-laguntza, transferentzia arrunt edo kapital transferentzia izendunak, aurrekontuan hasieratik bertatik daudenak edo kreditu-aldaketa bidez aurrekontuan txertatu direnak.

Gastua gauzatzen hasi baino lehen, eta Kontu-hartzaitzaren txostena horren aurretik eginda, gastua baimendu eta xedatu egingo du organo eskumendunak. Kasu bakoitzerako izapide edo tramitazio bidez ezarri diren dokumentu- edo inprimaki-ereduen arabera tramitatuko da.

### 2. Eginbeharrak edo obligazioak baimentzea, xedatzea eta aitortzea.

Ondasun jakin batzuen erosketek -baita ere kontratazio-prozesua bete beharrik ez duten beste gastu batzuk ere, obligazio-galdaketa berehalakoa izaten denean- "ADO" tramitazioa sortuko dute.

Talde horretakoak dira azpiko gastu hauek:

- a) Langileen ordain-sariak eta gizarte-zamak. Hileko nomina.
- b) Kalte-ordainak zerbitzu-arrazoiengatik. Lokomozio-gastuak eta dietak.
- c) Udalbatzaren zerbitzuan dauden langileen aurrerakin itzulgarriak.

- d) Udal taldeen diru sariak eta zinegotzien dietak.
- e) Interesak eta zorraren amortizazioa.
- f) Berandutze interesak.
- g) Beste finantza-gastu batzuk
- h) Luzatutako libramendu edo ordainketak (justifikatzekoak).
- i) Diru-transferentziak eta kapital ekarpenak udal erakunde autonomoei eta merkataritza-baltzu edo sozietateei.
- j) Ondare erantzukizuna.
- k) Beste gastu batzuk, hasierako paragrafoan adierazitakoen ezaugarriak dituztenak (zergak, kanonak, protokolo- eta ordezkapenekoak, notarioen ordainsariak edo Jabetza Erregistroaren arantzelak, presako konponketak, hondamendien ondorioz sortutako gastuak).
- l) Kutxa finkoko aurrerakintzat tramitatutako gastuak.

Gastu horien tramitazioa kontabilitatean ateratako faktura-zerrendetatik abiatuta egingo da, Alkateak –aurretik Kontu-hartzaileak bere txostena emanda- onartuko dituenak.

## **22. artikulua.- Diru-ateratzeak.**

1. Aurrekontu arrunteko itzulketak hauek dira: obligazioa aitortzea, ordainketa eta itzulketa, hiru egintzok aurrekontu-ekitaldi berean egitea.  
Aurrekontu arruntaren diru-ateratzeek kreditua birjarri dezakete dagokien zenbatekoan.
2. Itxitako ekitaldiko itzulketak obligazioa edo betebeharra aitortu zen ekitalditik kanpoko ekitaldi batean sortzen direnak dira.  
Itxitako ekitaldien itzulketak Toki Erakundearen Diru-sarrerako Aurrekontuaren baliabide dira.

## **23. artikulua: transferentziak eta kapital ekarpenak udal erakundeei.**

1. Ekitaldi bakoitzaren hasieran, erakunde autonomoen eta udal sozietateen aldeko kapital ekarpenen eta transferentzien konpromisoak erregistratzeko, gastuaren onespene- eta xedatze-tramitea bideratuko da aurrekontuan horretarako jasotako zuzkiduraren zenbateko horrekin.
2. Transferentzia arrunten kasuan, hile bakoitzaren amaieran, obligazioaren aitorpena tramitatuko da gastu-konpromisoaren hamabirenean.

Ostera, kapital ekarpenetarako eta transferentzietarako, obligazioaren aitortpena burutzeko, finantzatzeko premia egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu behar da aldezturik, proiektu bakoitzean egiten den gauzatze-mailan oinarrituta.

3. Sozietateei eta Toki Erakunde Autonomoei ematen zaien urteko diru-laguntzaren zenbatekoa aurrerakin itzulgarritzat hartuko da, diru-laguntza hori -bere osotasunean edo zati batean- erakunde horietarako diru-sarrera eta gastuen arteko oreka ezartzeko azken baliabide legeztar beharrezkoa ez balitz.

#### **24. artikulua. Espedienteen tramitazio aurreratua.**

1. Gastuen tramitazio aurreratuko espedientetzat hartzen direnak, Udal Ogasunari obligazio ekonomikoak sor diezazkioketenak dira, gastua gauzatzen hasten den ekitaldiaren aurreko aurrekontu-ekitaldian nahiz Udal Aurrekontuaren luzamendu-aldian egiten hasten direnak.

“Kontratazio aurreratu”aren izenpean araudiak egiten hasten uzten dituen gastu-espedientei ekin dakieke gastu hori gauzatuko den ekitaldiaren aurreko aurrekontu-ekitaldian, baina betiere ondoko kasu hauetakoren bat betetzen bada:

- a) Azken urte hauetan, gastu-mota horietarako beti izan da Aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa.
- b) Hurrengo ekitaldirako Aurrekontu Proiektuan kreditu egokia eta nahikoa izatea.
- c) Udaltzat akordioa hartua edukitzea, kreditua hurrengo ekitaldiko Aurrekontuan sartzeko betebeharra edo obligazioa dakarren akordioa.

Tramiteei hasiera emateko Alkateari baimena eskatu behar zaio eta, aldezturik Kontu-hartzailetzaren txostena eginda, Alkateak ebatziko du tramitazio-hasiera. Aipatu den Kontu-hartzailearen txosten horretan, eta kontratatu behar den gastuaren inguruan ari dela, aurreko betekizun horietakoren bat betetzen den jasoko du, horretarako behar diren datu guztiak emanda. Eskara egiterakoan, gastu-sustatzaile den Sailak, egitea proposatzen duen kontratazioaren premia eta egokiera justifikatu egin beharko du, datozen ekitaldietako urtekoen zenbatekoa emanez, Baldintza Teknikoen Agiriak eta kontratazio publikoaren inguruan legeriak eskatzen dituen gainerako dokumentu guztiak aurkeztuta.

a) eta b) kasuetarako, kontratazio-espedientearen dokumentazioak ondokoak barneratu beharko ditu:

- Alkateak espedientearen txertatuko den dokumentu bat egingo du hauxe adierazten: azken urte hauetan, Udal Aurrekontu Orokorrean, gastu-mota horiek egiteko kreditu egokia eta nahikoa egon dela, edo, bestela, gastua gauzatzen hasiko den ekitaldiari begira prestatu den Aurrekontu

Proiektuan aurreikusi dela horretarako kreditua. Aldi berean, dokumentu horretan hauxe jasoko du: kontratu-aldi osorako, egoki eta nahikoa kreditu izendatzera bideratutako neurri guztiak hartzeko konpromiso saihestezina hartzen duela. Dokumentu horrek diru-izendapena izateari buruzko ziurtagiria ordezkatzeko du. (109.3. artikulua, SPKLTB)

- 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua baimendutako zenbatekoen inguruan edo mugen inguruan aipatzen duena bete egiten dela dioen ziurtagiria barneratu behar da. Horretarako, tramitazio aurreratuko baimena eskatzerakoan, Sail sustatzaileak, hurrengo ekitaldi horietako bakoitzean egin nahi duen gastuaren zenbatekoa zehaztu egin behar du. Datu horiek eta kontabilitatean daudenak eskuan dituela; kontu-hartzaileak aipatu den txosten hori luzatuko du.

2. Aurreko artikulua horretako a) atalak aipatu dituen kontratu horien artean, arruntenak, hauek dira:

Zerbitzu Saila:

- Eskailera Mekanikoen mantentze-lana
- Udal lokalen garbiketa.
- EZPONDETAKO BELAR—SASTRAKAK GARBITZEA.
- Sasoiko loreak zotaletan hornitzea
- Igogailuak mantentzea.

Kultura Saila:

- Armagintza Museoaren zerbitzu orokorrak.
- Coliseo Antzokiaren zerbitzu orokorrak.
- “Indianokua” Gaztelekua.
- Aisialdi zerbitzua kudeatzea.
- “Cielito” Musika Bandaren emanaldiak.
- “Usartza” Txistulari Bandaren emanaldiak.

Udaltzaingoa:

- Garabi zerbitzua
- Taxi zerbitzua.
- Bidaiarien herri barruko garraioa.

Gizarte Zerbitzuak:

- Etxeko laguntza.

Erosketa eta Kontratazio Atala:

- Erantzukizun zibileko kalteen gaineko aseguru eta ibilgailuena.
- Bizi-asegurua.
- Aseguru bitartekaritza.
- Kontratu deribatuak. Aldundiko Erosketa Zentrala.
- Lokalak errentan hartzea.

O kiroldedia

- Gorputz jarduerako joera berrien zerbitzua.
- Fitness zerbitzua.
- Jarduera fisikoen zerbitzua.
- Aerobic-a, dantza, jazza, Pilates...
- Igeriketa ikastaroak.
- SPA eta Orbea kiroldegiko kontrolgunea.
- Orbea kiroldegiko instalazioak mantentzea.
- Unbe garbitzea.
- Orbea kiroldegia garbitzea.
- Ipurua kiroldegia eta igerilekuak garbitzea.
- Belarrezko zelaiak eta igerilekua mantentzea.
- Sorospen zerbitzua.

“Juan Bautista Gisasola” Herriko Musika Eskola E.A.:

- Musika Eskolaren lokalak garbitzea.

“San Andres Egoitza” Fundazioa E.A.:

- Sukalde-zerbitzua.
- Ikuztegi zerbitzua.
- Esku-hartze psikosoziala.

3. Sail sustatzaileak eskatuta, kontratazio-espeditentea Erosketa eta Kontratazio Atalak bideratuko du; espeditentek artikulu honen aurreko atal horietan aipatu den dokumentazioa izango du. Kontu-hartzaileak aurretik txostena eginda, organo eskumendunak gastua eta kontratazio-espeditentea onartuko ditu.

Kontabilitatean "A" aldia erregistratuko da, tramitazio aurreratuarena. Gero, kontratua ekitaldi barruan bertan esleitu eta formalizatzen bada, kontabilitatean "D" aldia erregistratuko da, tramitazio aurreratukoa.

4. Jardunaldi bakoitzaren hasieran, kreditua egon badagoela egiaztatu ondoren, ekitaldiko Aurrekontu arruntari egotziko zaizkio baimenak, eta, hala bada kasua, tramitazio aurreratuko gastu-konpromisoak. Horretarako, Erosketa eta Kontratazio Atalak ziurtagiri bat bidaliko dio Kontabilitate eta Aurrekontu Atalari, aurreko ekitaldian tramitatu dituen kontratazio aurreratuko espeditenteen zerrendarekin batera, kontratu bakoitzaren zenbatekoa ere adierazita.

Krediturik ez balego edo dagoena nahikoa ez balitz, Alkateak, gastu aurreratuen espeditentek sustatu dituen arloetako arduradun guztiei, gastu horiek egiteko behar den kreditu-zuzkidura izateko egin beharrekoei ekiteko agindua emango die.

**25. artikulua. Urteko aurrekontuaren zikloari egokitzen ez zaizkion gastu-espeditenteen tramitazioa. Aldez aurreko fiskalizazioa.**

Gastuak ondasun arruntetan eta, izaeraz, aldizkakoak izan eta segidako traktukoak edo behin eta berriz egiten diren zerbitzuetan, gastu horiek, ekitaldi arruntean egiten hasi eta hurrengo ekitaldian edo datozen ekitaldietan amaitzen badira. kontratuaren hasierako aldiari dagokion gastua fiskalizatuko da eta gainerakoa ez da aldez aurreko fiskalizazioaren menpe egongo.

**26. artikulua. Justifikatu beharreko ordainketak.**

Luzatzen den edozein ordainketa-agindu dokumentu bidez justifikatu behar dela dioen printzipioaren salbuespen legez, betiere agindu hori ondorengo artikulua arautzen duen kutxa finkoko aurrerakinaren zirkuitu horretatik ezin ahal bada egin, azpiko taula honetan aipatzen diren aurrekontuko kontu-sailen kargu eta bertan aipatzen den diru-muga horren barruan, "justifikatzeko" izaera duten aginduak eman ahal izango dira.

KONTU SAILA:	IZENDAPENA	Hartzailea	MUGA (EUROTAN)
1.0700.226.06.338.00	Ekitaldi sozio-kulturalak."	Jai - Batzordea.	121.982,12
Bestelakoak		batzuk	Aurrekontukoa

Hiru hilekoa da libratu diren funts horien justifikazioa egiteko dagoen gehieneko epea, funtsok jasotzen direnetik zenbatzen hasita.

"Justifikatzeko" ordainketa-aginduak luzatu ahal izateko ezinbestekoa baldintza izango da, eskuratzailerak ez izatea aurrez jasotako edo eskuratutako funtsik justifikatzeke.

**27. artikulua. Kutxa finkoaren aurrerakinak.**

Aldizkakoak izan eta errepikatzen diren beharriaz zuzentzeko justifikatu beharreko funtsak badira, horiek kutxa finkoaren aurrerakinak izango dira. Aurrerakin horiek ematea eta itzultzea aurrekontuz aparteko izaera izango dute.

Emango diren kutxa finkoko aurrerakin bakarrak azpian adierazitako beharriaz zuzentzeko justifikatu beharreko funtsak izango dira, bertan finkatutako diru-muga honekin:

ZERTARAKOA.	ARDURADUNA:	MUGA (EUROTAN)
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gastu txikiak (posta, taxiak, autobide-gastuak).</li> <li>• Jasotzean ordaintzeko liburuak.</li> <li>• Jabetza Erregistroa</li> <li>• IAT, ibilgailuen azterketa teknikoa.</li> <li>• Zenbateko txikiko material-kontsumoa, udal langileek dendetan erosten dituztenak.</li> </ul>	Erosketa eta kontratazio Atala.	700 €

Kutxa finkoko aurrerakinak Alkatetzaren Dekretuz baimenduko dira. Aurreko likidazioa aurkeztu ondoren funts hornidura besterik gabe berriztatuko da.

Kutxa finkoko aurrerakinak eskuratzen dituztenek Udal Kontu-hartzaitzaren aurrean eman behar dute horren kontu, egin dituzten ordainketen kontabilitatea eta jatorrizko egiaztagiriak ekarrita. Kontu emate hori egiteko dagoen gehieneko epea hiru hilekoa da aurrerakinak entregatu diren egunetik zenbatuta, eta, edonola ere, abenduaren 15a baino lehen.

Funtsak birjartzeko ordainketa-aginduak, justifikatutako zenbatekoei dagozkien aurrekontuko kontu-sailei aplikatu behar zaizkie.

## **28. artikulua.- Kontuhartzaitza kontrola.**

Aurrekontu-araudiak aurreikusitakoaren babespean onartu eta ezartzen da artikulua honetan islatutako alderdiei dagokien aurretiazko fiskalizazio mugatua, baina horrek ez du kentzen, gerora, fiskalizazio baten bidez egingo den beharrezko egiaztapena egingo ez denik, obligazioetan edo gastuetan aipatu den fiskalizazio mugatu hori sortarazi zuten egintzen, dokumentuen edo espedienteen lagin adierazgarri batzuk erabilita.



Orokorrean, gastuak eragiten dituzten eduki ekonomikoko egintza guztien aurretiazko fiskalizazioa eta kontu-hartzea ondoko baldintza hauek egiaztatzen mugatuko da:

- a) Lotura-mailako aurrekontu-kreditua izatea eta proposatutakoa egokia izatea. Alde horretatik kreditua egokitzat joko da, udal Diruzaintzaren gain dauden hartu beharreko edo sortutako eta ez preskribatutako obligazioak finantzatzen dituenean, horretarako lege ezarritako baldintzak beteta.
- b) Obligazioak edo gastuak erakunde eskudunak sortzea.
- c) Gastua finantzatzeko baliabideak benetan eskuragarri izatea.
- d) Obligazioak edo gastuak aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzea.
- e) Obligazioari edo gastuari sostengua ematen dioten dokumentuak zuzenak izatea eta beharreko sinadurak eta baldintzak izatea. Alde horretatik, gastuaren obligazioa aitortzeko dokumentu-euskarriak zerbitzua, hornidura, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzen duen arduradunaren sinadura eta identifikazioa izango ditu.
- f) Konpromisoetako kredituen eta urte askotarako gastuen kasuan, Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen Aurrekontuetarako Foru Araudiak ezarritako mugak eta baldintzak betetzea.
- g) Obligazioa edo gastua bere gain hartzen duen aurrekontu-sailak iragankortasun arauak betetzea; bai eta espezialitate- eta espezifikazio-arauak ere, gastuaren izaera funtzionalaren eta ekonomikoaren arabera, bai eta izaera organikoaren arabera ere, kasua balitz.
- h) Kudeaketa-prozesuan duten garrantzia dela-eta, Udaleko osoko bilkurak erabakitako bestelako alderdiak.

#### IV. KAPITULUA: Udal Diruzaintzak

##### **29. artikulua. Funtsen egoera.**

1.- Kontuak zabaltzea eta ixtea; kontuen mugimendua eta kontuaren zertarakoak zehaztea, hori dena Alkate-udalburuaren eskumenekoa da, edo alkateak berak ezarritako baldintzetan, horretarako izendatzen duenarenak.

2.- Diruzaintzako funtsak erabiltzeko, Udalaren Alkate-udalburuak, Kontu-hartzaileak eta Diruzainak, hiru horiek -edo horietako bakoitzaren ordezkariak- sinatu behar dute.

Ostera, finantza-erakunde batean dauden udal titulartasuneko kontuen arteko funts mugimenduentzat, sinadura edo izenpe bakarria behar izango da, Diruzainarena edo haren ordezkariarena.

3.- Eraginkortasun ondorio soilarekin eta Diruzaintzako Egoeran kontabilitatea islatzeko (urte bukaeran eta dagokion zenbatekoarekin izan ezik).

a) Eskudiruzko Kutzak zabal daitezke finantza-erakundeetan "Eibarko Udala. Saila:....." izenarekin ateratako kontu korrante bidez, Sailen eskura jarriko direnak.

Kontu horiek, Alkate-udalburuak eta legokeen Sailean horretarako izendatutako teknikariak izenpetuko dituzte.

Udalaren betekizunak gauzatzeko Udal Diruzaintzak Sail guztiei transferitzen dizkien funtsak edo diruak bideratu ahal izatea da duten helburu bakarria, eta zuritu beharreko ordainketa-agindu bidez edo zero zorpeko kutxa finkoko aurrerakin bidez funtzionatuko dute.

Pertsona baimenduak izango dira funts horien erabileraren erantzukizuna euren gain hartuko dutenak, eta horiek Udal Diruzaintzaren aurrean argituko dituzte kontuak.

Kontu horiek kontu-hartzearen kontrolpean egongo dira, eta edozein kasutan ere, jardunaldia amaitzerakoan, Sail bakoitzak bere kontuaren egoera argitu egin beharko du.

b) Halaber, diru-sarreretako kontu murriztuak ere zabal daitezke hainbat prozesu bideratzeko, hain zuzen ere duten berezitasunagatik (zenbatekoak, abonua-kopurua, aldikotasuna...) erabilera berezitua edo beren eraginkortasunera mugatutako erabilera murriztua izatea bidezko egiten denean. Hiru izenpetzaileak Alkatea, Kontu-hartzailea eta Diruzaina izango dira, edo horietako bakoitzaren ordezkariak.

### **30. artikulua. Betebeharrak ordaintzeko moduak.**

1. Edozein betebeharratik edo obligaziotik sortutako ordainketak egiteko eragiketak –Gastu Aurrekontua gauzatzea; bidegabeko diru-sarrerak itzultzea, edo aurrekontukoak ez diren beste zeinahi eragiketa egitea- ondorengo alderdi hauek betez egingo dira:

2. Egiten diren ordainketak hartzekodun zuzenen izenean luzatuko dira -pertsona fisikoak edo juridikoak, edo pertsonalitate juridikorik ez duten erakunde publikoak zein pribatuak- hau da: egindako kontratuen ondorioz prestazioak gauzatu dituztenen izenean; diru-laguntzen edo laguntza publikoen onuradunen izenean; edo, orokorrean, aurrekontu-izaerako edo aurrekontuz kanpoko izaerako obligazioak edo betebeharrak hartu izan dituztenen izenean.

3.- Ordainketak egiteko moduak hauek izango dira:

a) Izaera orokorrekarekin, ordainketa, Eibarko udalaren kontu baten kontrako banku-transferentzia bidez egingo da, behar bezala baimenduta.

Transferentzia hori hartzekodunaren izenean irekita dagoen kontu batera egingo da, berak esandakoa.

Hori egiaztatzeko beharrezkoak diren inprimakiak eta prozedurak finkatuko dira, hala egin beharra balego.

b) Txeki izendun bidez, agindutako ordainketaren izaeragatik, banku-transferentzia bidez egiterik ez balego.

Horrelako kasuetan ordainketa eskuratuko duen pertsonaren nortasuna egiaztatzea eskatuko da (pertsona fisikoen kasuan) edo botere ahal nahikoa duen ordezkaria (pertsona juridikoak eta gainerakoak).

c) Horrela egitea justifikatzen duten inguruabarrak daudenean; aurretik adierazitako era horietan ordainketak egiterik ez dagoenean; horrelakoetan bakarrik egin ahal izango dira ordainketak eskudirutan edo beste baliabide batzuk erabilita (esate baterako, udal honen izenean zabaldutako kontu baten zordunketa egiteko baimena ematea).

d) Kasu berezietan sinadura bakarrarekin egin ahal izango dira ordainketak: diruzainarena edo ordezkoiarena. Tramitatzeko presa dagoelako, ordaindu beharreko kontzeptua berezia delako edo hartzailea publikoa delako, kasu berezitat hartuko dira honakoak: jaulkitzailea, erreferentzia, zenbatekoa, etab. barra-kode baten bidez adierazten duten sektore publikoko erakundeei egindako ordainketak, hala nola, tasak, aldian aldiko zerga-erreziboak, gizarte-asegurua, etab.

4. Ordainketak egin aurretik, eskura dauden baliabide tekniko guztiak erabilia, egiaztatuko dena da, hartzaileak ez diola ezer zor Udal Diru-bilketari (premiamenduzko prozeduran), eta kreditua ez dagoela bahituta edo lagata.

Kreditua bahituta edo lagata balego, horretarako udalak ezarritako prozedura beteko da.